

2017KO ABENDUAREN 28AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2017ko abenduaren 28an, 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: MARÍA ISABEL BARTUREN LASA jarduneko alkate andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna, EAJ-PNV
- GORKA AZAOLA LÓPEZ DE GEREÑO jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI).

AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA alkate andrea (EH Bildu) eta IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna (EAJ-PNV) zinegotzia ez dira bertaratu.

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak, batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu eta berehala, ondoko hau jakinarazo dau: Amets Jauregizar alkate andrea amatasunagaitik 2018ko urtarrilaren 21era arte bajaran dagoala-eta horrek sinatutako 2017.12.XX eskutitzaren bidez Maria Isabel Barturen Lasa alkateordeari ahalordetza emon deuto bere izenean udalbatzetan eta informazino batzordeetan botoa emoteko, horrela bada, Euskadiko Toki Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25. artikulua ezartzen dauenagaz bat etorritz.

Jarraian, jarduneko alkate andrearen lehendakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2017KO ZEMENDIAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2017ko zemendiaren 30ean egindako ohiko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

2.- 2017KO ABENDUAREN 5EAN EGINDAKO APARTEKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2017ko abenduaren 5ean egindako aparteko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMOTEA ETA ABENDUAREN 12KO 386/2017 DEKRETUA BERRONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

372/2017.- Aitz Gane inguruko ezponda egonkortzeko obren burutzapena esleitzea.

373/2017.- Nomina ordaintzeko ebazpena.

374/2017.- Telefoniako zerbitzuak kontratatzeko esleipen prozedura hastea.

375/2017.- Eskolako garraioa egiteko baimena.

376/2017.- Automobilismoko proba bat egiteko baimena.

377/2017.- Obligazinoen ordainketa.

378/2017.- Urkitzako estalpea eraikitzeko diseinurako kontratu txikia.

379/2017.- Goi arkitekturaren zerbitzua kontratatzeko plegua onartzea.

380/2017.- Euskal surf zirkuitua antolatzeko baimena.

381/2017.- M^a Isabel Barturen Lasa jarduneko alkatesa izendatzea.

382/2017.- Kredituak aldarazteko espedientea.

383/2017.- Obligazinoen ordainketa. .

384/2017.- Obligazinoen ordainketa.

385/2017.- Diru-laguntza zati bateri uko egitea.

386/2017.- Urkitzako patioa irisgarritasuna hobetzeko obraren oinarritzako proiektua.

387/2017.- Obligazioen ordainketa.

María Isabel Barturen jarduneko alkatea andreak, dekretu honeei buruzko azalpenak emon dauz:

374/2017.- Bakioko udaleko pertsonalaren eta udal eraikinen telefono finko, mugikor eta internet zerbitzuen kontratua:

Kontratua esleitzeko prozedura izapidetzea erabagi da. Kontratuak urte biko iraupena izango leuke, beste urte bi luzatzeko (urterik urte) aukerea egonik. Tramitazioa prozedura irekiaren bidez egingo da eta lizitazio prezioa 33.600 euro gehi BEZa izango da.

378/2017.- Horren bidez, Jokin Lekunberri Larrea arkitektoari behar hau adjudikatu jako: udaletxeko aurreko enparantzaren zati bat estaltzeko diseinuaren obraren zuzendaritza eta proiektua idaztea; izan be, estaldutako patio modura erabiliko litzateke "Urkitza" ikastetxearen zerbitzurako.

Arkitekto hori aukeratua izan da berak "Ikasgela irekia" lemapean aurkeztutako proposamenak irabazi ebalako, aurkeztu ziran beste proposamenen artean. Izan be, prozedura parte-hartzailearen ondorio modura eta prozesu hori arautzen daberen oinarrietan zehaztutakoaren arabera, Jokin Lekunberri Larrea arkitektoari esleitu behar jakoz gune estaldua diseinatzeko beharrak.

385/2017.- eskolako saskibaloiko kantxa asfaltatzeko Eusko Jaurlaritzari dirulaguntza eskatu jakon, baina gero pentsatu da obra hori proiektu zabalagoan sartu beharko litzatekela, hau da, aterpearen obrea eta eskolako eraikina handitzeko obrea.... Beraz, dirulaguntza ez onartzea erabagi da.

Segiduan, abenduaren 12ko 386/2017 dekretua berroneste proposatzen dala eta, idazkariak hauxe dino: dekretu horren bidez, Bakioko "Urkitza Ikastetxe"ko patioari eta sarbideari jagokenez, irisgarritasuna hobetzeko obrak burutzeko oinarritzako proiektua onartu zan (Jokin Lekunberri Larrea arkitektoak idatzitakoa); izan be, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2017.11.2ko Aginduaren bidez zabaldu eban mota horretako obraren finantzazinarako diru-laguntzak eskatzeko deialdia eta epea abenduaren 13an amaitzen zan. Beraz, proiektuko obrak udal aurrekontuan zainpetuta ez dagozan ezker, proiektua onartzea Udaltzatzen eskumena da, baina premiazko egoeran alkateak be onartu ahal dau, eta, ostean, alkatearen ebazpena udaltzatzen onetsi.

Hori esan eta berehala, Bakioko Udaltzatzen honako erabagia hartu dau, zinegotzien aho batez (Maria Isabel Barturen zinegotziak Amets Jauregizar alkate andreaken izenean

baiezko botoa emon dau Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25. artikulua (arabera): abenduaren 12ko 386/2017 dekretua berroneste.

4.- UDALETXE AURREAN DAGOAN HERRIKO ENPARANTZAREN ZATI BAT “URKITZA IKASTETXEA” ESKOLARI (AGIRRE LEHENDAKARIA PLAZEA 1) ATXIKITZEA ESKOLA ERABILERARAKO.

Udal idazkariak adierazo dau udalaren egitasmoa hauxe dala:

Herriko urigintza plangintzaren arau subsidiarioetan, udaletxearen aurrean dagoan herriko enparantza espazio libreen sistema orokor modura dago kalifikatuta.

Herriko urigintza plangintzaren arau subsidiarioetan, herriko eskoleak hartzen daun esparrua komunitate-ekipamenduko sistema orokor modura dago kalifikatuta.

Espazio libreen 335,35 m2. herriko eskola erabilerarako lagatzea gura da eta eskoleak hartzen daun esparruko 32,92 m2., barriz, eskola erabileratik desafektatu eta herriko enparantzari atxikitzea espazio libre modura.

Eragiketa horrek ez dau sistema orokorraren azaleraren aldaketarik ekarriko.

335,35 m2. horreek estaldutako patio modura erabiliko litzateke “Urkitza” ikastetxearen zerbitzurako. Horretarako, Jokin Lekunberri Larrea arkitektoak 2017.12.09ko data daukan irisgarritasuna hobetzeko obrak burutzeko oinarritzko proiektua aurkeztu dau.

Segiduan, Bakioko Udalbatzak honako erabagia hartu dau, zinegotzien aho batez (Maria Isabel Barturen zinegotziak Amets Jauregizar alkate andrearen izenean baiezko botoa emon dau Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25. artikulua (arabera))

Udaletxe aurreko herriko enparantzaren (Agirre Lehendakaria 2) 335,35 m2.ko zatia herriko eskolaren (Agirre lehendakaria, 1) erabilerarako lagatzea.

Herriko eskolaren esparruko 32,92 m2.ko zatia eskola erabileratik desafektatu eta herriko enparantzari atxikitzea.

Hori guztiori espedientean dagozan azalaren planoen arabera.

335,35 m2. horreek estalitako patio modura erabiliko litzateke “Urkitza” ikastetxearen zerbitzurako, beti be 2017.12.09ko data daukan irisgarritasuna hobetzeko obrak burutzeko oinarritzko proiektuaren arabera.

EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDATIK KANPO (Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 91. artikulua arabera).

Aitor Apraiz zinegotziak EAJ-PNV talde politikoaren izenean, adierazo dau mozino hau aurkeztu gura dauala:

“MOCION DE CONDENA CONTRA LAS PINTADAS ANONIMAS REALIZADAS AL BATZOKI DE BAKIO

Las organizaciones políticas abajo firmantes, condenamos el ataque con pintadas realizado contra el Batzoki de Bakio en la madrugada del último 16 de Diciembre. Al margen de la discrepancia origen de las pintadas, básicamente motivada por diferentes formas de entender y de pensar, condenamos la actitud de hostigamiento y amenaza política, saltándose todas las reglas del debate democrático y la libertad de expresión.”

A) Bakioko Udalaren osoko bilkurak, mozinoaren gai hori **premiatzkoa dala erabagi dau** korporazinoa legez osotzen daberen zinegotzi gehiengo osoaren aldeko botoari esker (Aitor Apraiz, Jose Antonio Abio, Gorka Azaola, José Luis Urrutia, EAJ-PNV taldekoak eta Alain Gómez eta Josu Garai Bakiobai taldekoak).

Maria Isabel Barturen, Egoitz Abio, Aitor Ibarzabal eta Amets Jauregizar (bere izenean Maria Isabel Barturen zinegotziak botoa emonik, Euskadiko Toki Erakundeetako buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25. artikulua arabera), barriz, abstenidu egin dira. Maria Isabel Barturen jarduneko alkate andreak abstentzinoaren arrazoia haxe dala argudiatu dau: ez dogu ulertzen gaia zergaitik dan presazkoa; izan be, pintadak abenduaren 16an egin ziran, gaiaren ganean abenduaren 18an berba egin zan eta ordutik ona horrezaz ez dogu izan ezelako berririk.

B) Jarraian, Bakioko Udalaren osoko bilkurak, korporazinoa legez osotzen daberen zinegotzi gehiengo osoaren aldeko botoari esker (Aitor Apraiz, Jose Antonio Abio, Gorka Azaola, José Luis Urrutia, EAJ-PNV taldekoak eta Alain Gómez eta Josu Garai Bakiobai taldekoak) erabagi hau hartu dau: **EAJ-PNV talde politikoak aurkeztutako mozinoa onartzea.**

Maria Isabel Barturen, Egoitz Abio, Aitor Ibarzabal eta Amets Jauregizar (bere izenean Maria Isabel Barturen zinegotziak botoa emonik, Euskadiko Toki Erakundeetako buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25. artikulua arabera), barriz, abstenidu egin dira. Maria Isabel Barturen jarduneko alkateak, EH/Bildu taldearen izenean, abstentzinoaren zergaitia azaldu dau haxe esanez: EAJ dinoenean “condenamos la actitud de hostigamiento y amenaza política”, ez dogu ulertzen esaldi hori nori edo nortzuei zuzenduta dagoan eta, beraz, zer gura dauan esan.

Alain Gomez zinegotziak, Bakiobai taldearen izenean, eurak mozinoari baiezkoa emon deusela arrazoi honegatik: argi dagoana da alderdi zehatz bateri egindako eraso

bortitza izan dala, guztiz arbuiagarria, ze alderdi horregaz bat etorri ez arren, beste bide batzuk erabili behar dira desadostasunak azaltzeko, esaterako, elkarrizketea.

Maria Isabel Barturen andreak dino Alainek esandakoagaz bat datorrela, baina kasu honetan ez dagozala gaia kudeatu dan moduagaz ados.

ESKAERAK ETA GALDERAK

Aitor Apraiz zinegotziak dino U.T.E BAKIO KIROLAK idatzia aurkeztu ebala udalari epea emonaz bertan eskatzen zana onartzeko, eta galdetu dau ia harrezkero ezer barririk dagoan.

Egoitz Abio zinegotziak dinotso enpresa horrerri idazkariaren txostena bialdu jakola, bai eta idatzi bat be; idatzi horretan adierazoten jako eukitako gastuak eta horreen justifikazioa zehaztu daian, udalak beharrezko erabagia hartzeko. Eta ondinokarren ez dogu erantzunik euki.

Idazkariak dino enpresek ez dauala eskatu kontratua bertan behera ixtea, baizik eta galera ekonomikoak izan dauzala eta udalak bere gain hartzea. Kontratua 2018ko urtarrilaren 31n amaitzen da. Urtarrilean kiroldegiaren ustiapena barriro adjudikatzeko prozeduraren tramitazioa hasiko dan ezker, enpreari idatzia bialduko jako 2018ko zezeilaren 1etik aurrera, gehienez, sei hilabeteen zerbitzua emoten jarraitu behar dauala adierazoz, tarte horretan kontratu barria adjudikatu arte.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate andreak batzar hau 19:25ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria